

Bero-beroan

JON TORNER

EITBren kate digitalak Ipar Euskal Herrian

EITB-K eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), euskarazko telebista eta irrati kate digitalak –ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea– Ipar Euskal Herrian jasotzeko akordioa sinatu dute. Itzalaldi analogikoa gertatu baino lehen, beharrezko egitura teknikoa prest izatea dute helburu bi aldeek.

G-mail euskaraz

MUNDU OSOAN gehien erabiltzen den e-posta zerbitzua izango da ziurrenik, baina orain arte ezin zen euskaraz erabili. Pedro Arreitunandia ‘Tolon’ jabe-

tu zen pasa den astean aukera berriaz, eta berehala zabaldu da albistea euskarazko blogosferan. Polemikarako tartea ere izan da: EITBk bere Interneteko atarian esan du Gmail euskaratzea Google-en eta EITBren arteko akordioaren emaitza dela, eta hainbat internauta haserretu egin dira baieztapen horrekin. Kanpaina abiatu dute Twitter-en, “lotsagabe” hitza erabiliz.

Lakarra, euskaltzain oso

JOSEBA ANDONI LAKARRA euskaltzain oso izendatu zuten iragan larunbatean Arratzun (Bizkaia), bere herrian. Euskararen historia ikertu du Lakarrak, eta filologiako irakaslea da Gasteizko Letren Fakultatean.

BAHEA

Felix Etxeberria EHUko katedradunak iritzi artikulua plazaratu du *Noticias de Gipuzkoan*: “Gobernu aldaketaren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak borondatea erakutsi du Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialek tratu bera izan dezaten (...) Tratu berarekin euskarak diskriminatua izaten jarraituko du. Non dago diskriminazio positiboa hizkuntza ahularekiko? (...) PSOEk Katalunian eta Europako Parlamentuan onartzen ez duen zerbait onartzen du Euskadin PSE-EEk (...) Hizkuntza aukeratzeko askatasunari buruzko sozialisten eta ‘popularraren’ arteko ituna zergatik ez da egiten Nafarroan?”.

Miquel Strubell Universitat Oberta de Catalunyako irakasleak *Gipuzkoaeuskara.net-en*, Kataluniako hizkuntz politikarako konstituzio esparruaz: “1979ko Estatutuarekin alderatuz, hizkuntzen auzia arautuago dago 2006ko Estatutuan (...) 2006ko Estatutuan, 17 artikulutan jorratzen da hizkuntzen auzia (...) Universitat de Barcelonako Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle Mar Aguilera Vaqués doktoreak honako ondorio irmo hau atera du: ez dago arau horien konstituzionaltasuna zalantzan jartzeko arrazoi juridikorik (...) Aguilera irakaslearen ondorioak aintzat hartuta, esan daiteke Konstituzio Auzitegiak Estatutuan hizkuntzei buruzko artikuluetan murrizketak egiteko epaia emango balu, epai hori, arrazoi juridikoen ondorio izan beharrean arrazoi politikoaren ondorio izango litzatekeela. Murrizketa horiek gertatuko balira (eta ez dut horrelakorik aurreikusirik nahi), baieztatuz egingo lirateke Kataluniako prentsan argitaratutako zenbait filtrazio, epaia eman aurretik Konstituzio Auzitegian izandako eztabaidei buruzkoak”.

Honelako albistek egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Garoa: hauteskunde konpromisoak bete

Ostirala baino lehen, hilak 5, Segurtasun Nuklearrerako Espainiako Kontseiluak (CSN siglak, gaztelaniaz), erabaki behar du ea Euskal Herritik gertu dagoen Garoñako zentral nuklearra, segurua den beste hamar urtez funtzionatzeko. Erantzuna baiezkoa izanez gero, 40 urtetik gorako bizitza duen Espainiako Estatuko lehenengo planta izango litzateke, eta seguruena, beste nuklearrei ateak irekiko lieke. CSNk argi berdea emango balio, Espainiako Gobernuak hilabete izango luke erabakitzeko zentral nuklearra ixten duen edo ez.

CSNko plenoa Garoñak martxan jarraitzearen alde azaldu liteke, baina baldintza batzuekin. Bere erabakiak, hala ere, ez du Espainiako Gobernuarena lotzen. Ondorioz, PSOEko Gobernuaren txanda iritsi da. Zapaterok bere garaian, hauteskundeetara aurkeztu zenean, hartutako konpromisoa eta emandako hitza betetzeko ordua iritsi da. Zapatero nuklearren aldeko lobbyen presio handia jasaten ari da orain, Garoñaren jabe diren Endesa eta Ibedrola bezalako elektrika handien eskutik, eta multinazionalen eta bere erakunde patronalen aldetik. Horiek guztiek luzapena nahi dute Garoñarentzat. PSOEren barruan ere badago norabide horretan presionatzen duenik, Felipe Gonzalezek eta Javier Solanak, esaterako. Alderdiko euskal baseek, ordea, berehala ixtea nahi dute, baita EAEko erakunde politikoek eta nuklearren kontrako Euskal Herriko eta Espainiako mugimenduek ere.

Zapaterok presiditzen duen Gobernuak erabaki behar du nuklearren aldeko kanpoko eta alderdi barruko lobbyen eskaria asetzea, edo kasu egitea bere base herrikoiei, euskal erakunde politikoei eta joan den larunbatean Gasteizen manifestatu ziren nuklearren kontrako ahotsei. Gaur interesatu diezaiokena aparte utzita, konformatuko ginatke PSOEko Gobernuak hauteskundeetako bere promesak betetzearekin.

Juan Mari Arregi

Sufrimendua dekretuz ezabatzen denean

EUROPAKO Legebiltzarrak zertarako demontre balioko ote du? Eta bistan da erantzunak oso desberdinak direla indar politiko bakoitzarentzako, eta hainbat arrazoiengatik bada ere, denek egon nahi dute herritarrek hautatu baina hauengandik horren urrun dagoen erakunde. Europako Batasuneko Kontseilua bera ere gertuago sentitzen dute herritarrek, besterik ez bada beren herrialdeko gobernuo agintariak direlako eta etxeko telebistan jardunean ikusi egiten dituztelako.

Europako Legebiltzarra ez da ikusten, baina nozitu bai, gero eta gehiago gainera. Baina gaitza da herritarrek hortaz ohartaraztea, parte hartze txikiak argi erakutsiko duen legez. Zerbait egiten dela adierazteko kanpainetan dirua xahutzea baino neurri eraginkorragoak beharko dira herritarrengan bestelako sentipenak ernarazteko. Parlamentu honek ez du ez gobernuak hautatzen ezta Europako Batasunaren etorkizuna bideratzen, eta hori zama handiegia da herritarrek gertuko zerbait moduan senti dezaten. Urruti eta hotz, luzaroan jarraituko du horrela Europako Legebiltzarrak.

Han ahotsik izatea, alabaina, garrantzitsua da ia guztientzat. Ikusi 2006ko euskal gatazkaren negoziazio prozesuan Legebiltzar honek izan zuen garrantzia; edo Europako estatu gabeko herriei jartzen dien bozgorailua; edo erregioen egituratze berrietan herri zatikatuek dituzten zirrikituak; edo 65 orduko lan asteari –Komisioaren proposamena– ateak ixteko izandako garrantzia edo... Arnaldo Otegi adierazi moduan, udazkenetik aurrera indar soberanisten metaketa lanerako baliatzen.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

SOBERANISTEN metaketa hori da EAren barrunbetan arazo iturri nagusienetakoa uneotan, azalartzen ari dena bederen, bere bi sektore nagusien arteko ezin ikusiak hori baino sakonagoak eta zaharragoak baitira. 1986ko EAren zatiketa berri hartan sozialdemokrazia ezaugarri nagusietako gisa agertu zenetik, esate batera, gaitza zen ulertzea nola konponduko ziren kabi hartan Bultzagilleetakoak. Zatiketa gauzatua dago jada, eta 20 eta 21eko Kongresuak hori baieztatu besterik ez du egingo.

Eta zatiketa guztietan bezala, orain siglekin, karguekin eta ondarekin zer gertatzen den ikusi beharko da. Badakit oraindik kongresuaren atarian hala idaztea mingarria izan daitekeela EAko kide askorentzat, baina zuzendaritzak eta Gipuzkoako sektore kritikoek adierazten dutena ikusita, ez dago

beste ondorioetarako lekurik. Are gehiago sektore bateko zein beste-koak blogetan erakusten ari diren jarrera ikusita.

Pello Urizar arrasatearra izango da seguruenik idazkari nagusi berria eta hala bada, edozeren aurretik bere ausardia da azpimarratu beharko dena, lehen urratsen bederen zatiketa kudeatu beharko duelako.

Ez dago zalantza handirik Iñaki Galdosek gidatzen duen EAko zatia- ren etorkizunaz, lehenago edo gero-ago bere lekua EAren dago, korrante antolatu gisa edo nahi den bezala, baina jeltzaleen orbitan. Egungo zuzendaritzaren EAren etorkizuna ere oso zalantzazkoa da, eta neurri handian bera ere eraikitzen ari den bloke soberanista horren arrakastari lotua dago.

Badirudi, hala ere, alderdiei dagokionez bloke horri buruzko oso ikuspegi desberdinak aurreikusten direla. EAren bere aurkako ekimen gisa ikusten du –ETAko *Argi* eta *Gauekok* ere hori irudikatzen zuten beren elkarrizketan–; beste abertzale batzuk ETAren borroka armatuaren lurreratze pista gisa; Patxi Zabaletak iragan igandean *Deian* adierazitakoaren arabera, “indar politikoak soilik erabakitzeko eskubidearen inguruan biltzea ez da proposamen politikoki funtzionala”; Arnaldo Otegi, aldiz, udazkenetik aurrera jardunean arituko den erreferentzia politiko gisa dakusa polo hori... Argi dago, egitura batzuetako makineriak abiada hartzen ari dira jada eta uda honetan badirudi asko hitz egingo dela soberanismoari buruz. Are gehiago Iniziatiba Internazionalistak hauteskundeetan emaitza txukunak lortzen baditu.